

atzeritartasun gida

atzerritartasun gida

ELAko sindikalistentzat

ELAko immigrazio alorrak egina 2017ko urtarrilean eguneratua

Testu honen xedea prestakuntza eta informazioa eskaintzea da. Legez baliozko diren testu bakarrak dagokien erakundeetako argitalpen ofizialetan agertzen dira. ELA saiatzan da testu horiek eguneratuak, zehatzak eta egiazkoak izan daitezen, baina ohartarazi nahi du hauek ez direla testu ofizialak, eta beraz, ez du bere gain hartuko zehaztasun ezak edo akatsek eragindako ardurarik.

Halaber, espero dugu gidaliburu honen irakurle edo erabiltzaileak kontutan izango duela azken urteetan gertatzen ari den legediaren etengabeko erreforma; honek era honetako edozein material epe laburrean zaharkituta uzten du.

ELA
EUSKAL SINDIKATUA



Aurkezpena*

Gidaliburu hau Estatuko atzerritartasun araudiaren eguneraketa da. Izan ere, ELAko immigrazio arloak bere garaian argitalpen bat prestatu zuen, hots, "Atzerri gaiei buruzko galderarik ohikoenak", atzerritartasun legea 2011. urtean erreformatu izanaren karira.

Aldez aurretik aitortzen dugu gai honi buruzko baliabideak ezin direla mugatu alde juridiko eta legalaren inguruko informazio-aholkularitza hutsera. ELAren iritziz, ezinbestekoa da atzerritartasun kontuetan sentsibilizazioa nahiz kontzientzia hartzea, bai eta, oro har, Giza Eskubideen arloan ere, gizartea eraldatzeko eta kontrabotereko eragilea den heinean.

Hala ere, nahitaezkoa deritzogu baliabide praktiko hau eskura izateari, erabilgarria baita hala sindikatuaren egiturarentzat nola ELAko kide eta militanteentzat, bai eta etorkinen eskubideen aldeko lanean diharduen edo lan horretan interesa duen jende edo talde ororentzat ere.

Azken erreformen ondorioz eta oinarritzko gizarte eskubideen murrizketak kontuan hartuta, ikusten dugu pertsonaren egoera administratiboak (baimena izatea ala ez lurralde nazionalean egoteko) erabat baldintzatzen du oraindik pertsonak lan-merkatuarekiko duen harremana, eta, oro har, haren bizitza ere bai.

ELAk ohartarazi nahi du badagoela eskubideen unibertsalizazioa galtzeko arriskua (osasunean, gizarte laguntzetan, etab. gertatzen ari den bezala). Jakin badakigu eskubideen zatiketak eta ukazioak zuzenean ukitzen dituztela herritarrak eta gizarte arriskurik handieneko taldeak. Legea ez da neurri berarekin aplikatzen jendearen jatorri nazionala, etnia edo arrazaren ikuspegitik. Eta ez da ere gauza bera gizona edo emakumea izatea errealitate horren aurrean.

Azkenik, gure iritziz, sindikatuak defentsa kolektiborako tresna izaten jarraitzen du langileriarentzat, baina aitortzen dugu langileria heterogeneoa dela, eta langileen artean, etorkinen gizarte eta lan arloko eskubideen alde egin behar dugula bereziki eta hauen barnean, gizartearen erdia diren/garen emakumeoi. Horretarako, aurrerantzean ere funtsezkoa izango da gizarte mugimenduekin, eragileekin eta erakundeekin batera jardutea, denok elkarrekin borroka honetan aurrera jo ahal izan dezagun.

Pertsona etorkinen egoera administratiboa (baimena izan ala ez lurralde nazionalean egoteko) erabakigarria da, egoera horrek pertsonaren eguneroko bizitza baldintzatzen baitu, hala lan mundu arautuan sartzeko nola oinarritzko gizarte eskubideak eskuratzeko, hala nola osasun arreta, etxebizitza eta/edo eguneroko bizitzaren gauza praktikoak: banku-kontu bat irekitzea, adibidez.

Horregatik, jokoan dagoen guztia kontuan hartuta, funtsezkoa da behar bezalako informazioa izatea, egoitza-baimen bat eskuratzeko edo mantentzeko.

* Aurretiaz jakinarazi nahi dugu gida honek lengoai juridikoa era testualean jasotzen duela; hau da, euskaran erdaraz ez bezala maskulino generikoa erabiltzen ez bada ere, kontziente gara lengoai juridikoak orohar gizartearen iruditeria androzentrikoa birstortzen duela.

Atzerritartasunari buruzko araudiak era utilitaristan tratatzen ditu Europar Batasunaz kanpoko atzerritarrak, eta ia kasu guztietan, diru-baliabideak izateari edo lana izateari edo ez lotu dio egoitza eskuratzeko aukera; gainera, nekez aplika daitezkeen betebeharrak asko eta asko eskatzen ditu, lan mundua egun nola dagoen ikusita. Zentzu honetan, Europar Batasuneko herritarrentzako eta haien senitartekoentzako eskakizunak ere gogortu egin dira.

Lan merkatuaren egungo egoera dela eta, gero eta gehiago dira gerora sortutako irregulartasun kasuak; hau da, paperak izan baina galdu izatea (behar adina ez kotizatzeagatik, enpresak zorrak izateagatik, eskatzen diren gutxienezko baldintzekin bat datorren kontraturik ez aurkitzeagatik, lanen batetik bere borondatez alde egiteagatik, etab.).

Hortaz, atzerritarrak ez daude espainiar nazionalitatea dutenen egoera berean, desberdinean baizik, eta mendekotasunean ere bai. Erregularizatzearen truke, edota hemen bizitzeko baimena galtzearen beldurrez, atzerritarrek askotan muturreko lan-baldintzak onartzea beste biderik ez dute izaten. Zentzu honetan, egun pertsona errefuxiatuak Europa zein munduko edozein tokitan pairatzen duten aparteko egoera azpimarratu nahiko genuke*.

Agiri honek baimenak nola eskuratu eta nola mantendu azaldu eta zehaztu nahi du, betiere honako araudi hau oinarri hartuta:

- 4/2000 Lege Organikoa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei buruzkoa, eta atzerritar horiek gizarteratzeari buruzkoa (hainbat aldiz erreformatua: LO 8/2000, LO 14/2003, LO 2/2009, LO 10/2011 eta RDL 16/2012).
- 557/2011 Errege Dekretua, Atzerritartasunari buruzko Lege Organikoaren aplikazioa arautzen duena.
- 240/2007 Errege Dekretua, Europar Batasuneko eta Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioa sinatu duten estatuetako herritarrak Espainian sartu, aske ibili eta bizitzeari buruzkoa.
- PRE/1490/2012 Agindua: 240/2007 Errege Dekretuaren 7. artikulua aplikatzeko arauak

Araudian bildutakoaz gain, aipatu beharra dago Atzerritartasun Bulegoetako zenbait barne irizpide ere ezarri direla. Ukaziozko ebazpenen eta eguneroko praktikaren bidez bakarrik ezagutzen dira horrelako irizpideak. Beraz, administrazio-jarduera iluna da eta pertsonak babes juridikorik gabe uzten ditu.

Horregatik, komeni da esparru horretako profesionalekin harremanetan sartzeari, inolako izapiderik egin aurretik.

* Hauen zako, behin hasierako asilo baimena eskatuta (erresidentzia baimena aitortzen du ez lan baimena) lan baimena 6 hilabeteko epean egon beharko litzateke. Apatrida direnen kasuetan ez da inolako lan baimenik eskuesten.

EDUKIA

1.	ESKUBIDEAK, ATZERRITARTASUN EGOERAK BALDINTZATUAK.....	9
2.	ATZERRITARTASUN EGOERA.....	13
3.	ADINGABEAK.....	25
4.	KONTU PRAKTIKO GARRANTZITSU BATZUK.....	27
5.	ATZERRITARRENTZAKO ARRETA ESPEZIALIZATUA ETA WEB ORRIAK.....	31

1

ESKUBIDEAK,
ATZERRITARTASUN
EGOERAK
BALDINTZATUAK

Espainiako lurraldean dauden atzerritarrak indarrean den Estatuko araudiari lotuta egoteaz gain, atzerritartasunari buruzko berariazko araudia aplikatzen zaie, atzerritarrek baitira. Araudi horrek oinarrizko eskubide batzuk aitortu dizkie, egoera erregularran nahiz irregularrean badaude ere, hau da, paperdunak ala paperik gabeak izan. Oinarrizko eskubide horietako batzuk murriztu dizkiete, hala nola osasunerako eskubidea. Arlo hori bereziki landu beharra dago, eta ondoren jaso dugu.

Berariazko legeriak ere gainerako oinarrizko eskubideak baldintzatu ditu. Hortxe dugu, esaterako, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Legea¹, azken urteetan betebeharrak gogortu dituenak. Eskubide horiek batez ere erroldan oinarritzen dira edo erroldara mugatzen dira. Horrek kanpoan uzten ditu zailtasun sozioekonomiko eta pertsonal larriak dituzten pertsonak. Zabaltzen ari den ildo xenofobo batek, gainera, holako pertsonak estigmatizatu ditu, eta zailtasun handiak daude erroldan sartzeko.

Herritartasun barne-hartzaile kontzeptua guztiz hutsik gelditu da mamiz, eta egungo arauak larriagotu egin dute pertsona askoren bazterketa- eta prekaritate-egoera larria, atzerritarrak, etorkinak, paperik gabeak, sarerik gabeak eta ia baliabide sozioekonomikorik gabeak baitira.

Osasunerako eskubidea

2012an, 16/2012² Dekretuaren bidez, PPreu gobernuak inoizko erreformarik larrienetako bat onetsi zuen "ongizate estatuaren" aurka, eta atzerritar erregularizatu gabeak zuzenean ukitu zituen. Erreformaren bitartez, osasun bazterketa ezarri egin da izatez: hots, egoitza-baimenik gabeko atzerritarrek ez dute osasun zerbitzuak eskuratzeko eskubiderik, salbuespenak salbuespen. Hiru salbuespen egoera aurreikusten dira: larrialdiak, adingabeak eta haurdunak.

Horrek praktikan esan nahi du administrazioaren aldetik erregularizatuta ez dauden atzerritarrek ez dutela lehen laguntzarik izango, ezta errezetarik ere, osasun sistema publikoan. Erreforma horrek atzerapen larri-larria eragin du gizarte politiketan, eta erabateko eraso herritar GUZTIEN aurka, bazterketa arautu duelako eta osasuna pribatizatu duelako. Horrela, ezabatu egin da oinarrizko gizarte eskubidearen unibertsaltasuna, eta bidea ireki da eskubideak zatikatzeko eta eskubideak diskrezionalitatez emateko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, gero 114/2012³ Dekretua onetsi zen, kanpoan gelditu ziren pertsonak erreskatatzeko asmoz, baina ez da osasun unibertsala berrezarri (erdi unibertsala), 1986az geroztik indarrean zegoena. Izan ere, Estatuko dekretuak bazterturiko pertsonen, ez badute eskuetan Osasun Txartel Indibidual bat, gutxienez urtebete jarraian Euskal Autonomia Erkidegoan erroldaturik egotea eskatuko zaie.

-
1. 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzekoa, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatua.
 2. 16/2012 Errege Lege Dekretua, apirilaren 20koa, Estatuko Osasun Sistemaren iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioen kalitatea eta segurtasuna hobetzeko premiazko neurriei buruzkoa
 3. 114/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan Osasun Sistema Nazionalaren osasun-prestazioak emateko araubideari buruzkoa

Egoera irregularrean dauden atzerritarren osasunerako eskubidea, beraz, baldintzatu-ta dago; hau da, EAEko lurraldean urtebetez errolaturik daramatela frogatu beharko dute. Bitartean, larrialdi bidezko arreta jasotzen badute, kobratuko zaie.

Nafarroan, aski da lurraldean errolatuta egotea; beraz, dekretu aurreko egoerara itzuli da.

2

ATZERRITARTASUN
EGOERA:
paperik gabeak
eta paperdunak

PAPERIK GABEAK	PAPERDUNAK
<i>Oinarrizko Gizarte Eskubideak</i>	
<p>Nahitaezko baldintza: ERROLDATUA EGOTEA</p> <p>NON:</p> <p>Udaletxean. Behar diren agiriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> · Indarreko nortasun agiria: pasapor-tea edo EBko nortasun txartela · Etxebizitza okupatzeko titulua (alokairu kontratua, azpierrentamendua, beste erroldatu baten edo jabe baten baimena) <p>OSASUNERAKO ESKUBIDEA</p> <ul style="list-style-type: none"> · EAE: Erkidegoko udalerriren batean urtebete erroldaturik daramala frogatzea (adingabeak eta haurdunak salbu), eta eskubidearen aitortza anbulatorioan eskatzea. · Nafarroa: aski da Nafarroan erroldatua egotea eta Norbanako Osasun Txartela eskatzea. <p>HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA</p> <p>Derrigorrezkoa eta derrigorrezkoaren ondokoa bermatuta daude.</p> <p>GIZARTE ZERBITZUETARAKO ESKUBIDEA</p> <p>Erroldatzearen bidez, pertsonak oinarrizko gizarte zerbitzuak eskuratuko ditu, eta era berean, lurraldearen arabera eskura dauden prestazio eta laguntza ekonomikoak, betiere lege-baldintzak beteta (erroldatze denbora eta agiri asko).</p> <p><i>Eskubide zibilak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> · Bilera, elkarte, manifestazio eta greba eskubideak. · Babes judizial eraginkorra <p><i>Lan eskubideak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> · Lan-harremanik badago, badago Langileen estatuaren babesa 	<p>Behin egoitza-baimena eskuratutakoan, atzerritarren eskubideak Espainiako nazionalitatea duen herritarren eskubideekin parekatuko dira.</p> <p>Hona hemen, egoera irregularren aldean, hobekuntza nabaria dakarten eskubide batzuk.</p> <p>Gizarte Eskubide handiagoak</p> <ul style="list-style-type: none"> · Desgaitasun/Minusbalotasun maila aitortu eta baloratzea. · Familia berrelkartzeko eskubidea. · Etxebizitza babestuak eskuratzeko programetan izena emateko aukera. · Hizkuntza Eskola Ofizialean sartzea · Titulu ofizialak jaulkitzea · Botoa emateko eta hautagai izateko eskubidea, jatorrizko herrialdearekin elkarrekikotasunezko hitzarmena baldin badago, eta 5 urtez bizitzen baldin badarama.

PAPERIK GABE:**ESTATU ESPAINIARREAN BAZAUDE ETA EZ BADUZU EGOITZA-BAIMENIK...
NOLA LORTU?**

Paperik ez baduzu, badago aukera paperak "aparteko inguruabarren" bidetik eskuratzeke, baldin eta aurrerago azalduta dagoen egoeraren batean bazaude, eta bisa baten bila itzuli behar izan gabe, eta oraingoz lehentasun nazionalaren printzipioa aplikatu gabe (hau da, espainiarrik langabezian badago, ezin zaio atzerritarrari lanposturik eskaini).

Bide horiek aukera eman dezakete, jada Espainiako lurraldean dauden atzerritarrak erregularizatzeko. Atzerritartasun araudiaren xedea da Estatu Espainiarreranzko migrazio proiektu bati ekin nahi dion pertsona atzerritar oro "paperak moldatuak" etortzea; hau da, etor dadila, jatorrizko herrialdean jadanik baimenak tramitatuta. Praktikan, dena dela, migrazio mugimenduen beren funtzionamenduak eraginda nahiz atzerriko eskumen eta ordezkaritza diplomatiko urriek eraginda, jada tramitatua dagoen egoitza- eta lan-baimenarekin etortzea bakarrik da aukera (eta oztopoz beterikoa) berrelkartuko diren pertsonentzat.

Atzerritarrak erregularizatzeko gainerako aukerak kasu jakin batzuei lotuta daude, hala nola ziurrenera Europan turista gisa sartu diren pertsonen eta aukeren bila dirautenei; eta baimena izan bazuten ere, huraxe berritzaile izan ez zutenak, azken urteotako ataka ekonomiko larriak eraginda. Zer egoeratan dauden, pertsona horiek guztiek "aparteko" erregularizatzeko bide bat aurkitu ahalko dute, baldin eta baldintza guztiak betetzen badituzte eta nahitaezkoa den dokumentazio guztia aurkezten badute.

1. APARTEKO INGURABARRAK

Aldez aurreko betebeharrak, honako bide hauetarako guztietarako:

- Aurrekari penalik ez izatea ez Estatu Espainiarrean, ez jatorrizko herrialdean.
- Ez dute Schengen esparruan sartzeko debekurik izan behar (debekua kanporaketari lotua dago).
- Ez dute egon behar ez itzultzeko konpromisoaren epe barruan (baldin eta beren jatorrizko herrialdera beren borondatez itzultzeko programaren onura jaso badute).

A) ERROTZE SOZIALA

HIRU URTE ESTATU ESPAINIARREAN + 12 HILABETEKO LAN KONTRATUA

- Espainiako lurraldean 3 urteko egonaldia frogatzea, ahal dela administrazioek jaulkitako agirien bidez (errola, osasun historiala, ikastetxeak, etab.), izena, helbidea eta data adierazita. "Kanpoko egonaldiak" gehienez 120 egunekoak izan behar dute.
- Honako gutxieneko hauek beteko dituen lan-kontratu bat aurkeztea:
 - Iraupena gutxienez 12 hilabetekoa izatea.

- Gutxienezko soldata lanbideen arteko gutxienezko soldataren baliokidea edo handiagoa x 14 ordainketa.
- Langileak eta enpresak sinatutako kontratua (enpresak behar adinako kaudimena frogatu behar du, PEFZa edo BEZa eta guzti).
- Kontratuaren hasiera-data baimena emateari baldintzatua.
- Legezko egoiliarrekin familia-loturak frogatzea, edota halakorik ezean, Errotze Txostena aurkeztea EAEn. "Zuzenean" izeneko erakundearen aurrean aurkeztu behar da, eta Nafarroan, berriz, pertsonaren helbidearen Udalean, betiere egonaldi urteak eta epealdi horretan (hala bada) egin diren gizarte jarduerak frogatuta.

B) ERROTZE FAMILIARRA

PERTSONA ESPAINIARRAREN AURREKOA EDO ONDORENGOA IZATEA

- Jatorriz espainiarra den norbaiten seme/alaba izatea (JAIOTZA-ZIURTAGIRI LITERALAK).
- Nazional adingabe espainiarraren aita / ama izatea, elkarrekin bizitzea eta haren kargua izatea (JAIOTZA-ZIURTAGIRI LITERALAK + ERROLDATZE FAMILIARRA + HITZARMEN ERREGULATZAILEA).

C) LAN ERROTZEA

2 URTE ESTATU ESPAINIARREAN + GUTXIENEZ 6 HILABETEKO LAN-HARREMANA IZAN DELA FROGATZEA

- Espainiako lurraldean 2 urteko egonaldia frogatzea (ERROLDA).
- Gutxienez 6 hilabeteko lan-harremana izan dela frogatzea, administrazio-ebazpenaren edo ebazpen judizialaren bidez; horretarako, tartean salaketa bat edo Lan Ikuskapen bat izan beharra dago (EPAIA edo IKUSKAPEN AKTA).

D) ARRAZOI HUMANITARIOAK

Kasu hauetako batean egotea:

- Langileen eskubideen aurkako delituen biktima frogatua izatea, edo arrazakeriaren larrigarria aplikatu zaion delituaren biktima izatea. (EPAIA)
- Gerora sortutako gaixotasun larria izatea, jatorrizko herrialdean ez dagoen tratamendu espezializatua behar duena, eta tratamendua eten eginez gero, osasuna edo bizia arriskuan jar dezakeena. (TXOSTEN KLINIKOA + BERARIAZKO TXOSTEN SOZIALA)
- Jatorrizko herrialdera itzultzeak segurtasuna arrisku larrian jartzea eragin balezake.

E) NAZIOARTEKO BABESA

Kasu hauetako batean egotea:

- Barne Ministerioak - Asilo eta Babes Batzordeak emandako baimena.
- Pertsona "desplazaturtat" joa izatea, hau da, aldi baterako babes behar duena, pertsona desplazatuaren kopuru handia iritsi bada.
- Asilo Legean eta haren arauen garapenean aurreikusitakoa.

F) AGINTARI PUBLIKOekin ELKARLANA

Kasu hauetako batean egotea:

- Agintari publikoekin elkarlanean aritzea, segurtasun nazionaleko edo interes publikoko arazoak direla medio
- Sare antolatuen aurkako elkarlana
 - Poliziaz bestelako administrazio-agintariei laguntza ematea.
 - Administrazio-agintari polizialei, fiskalei edo judizialei laguntza ematea.

Nolanahi ere, hori frogatzen duen TXOSTENA beharko da, agintari eskudunak sinatua.

G) GENERO INDARKERIA

Bi fasetan banatuta dago:

1. Behin-behineko egoitza eta lana emakumearentzat eta harekin dauden seme-alaba adingabeentzat, BABES AGINDUA edo FISKALIAREN TXOSTENA aurkeztuta. Berritzen joango da, epaiketa egin bitartean.
2. 5 urteko egoitza behin betikoa eta lana emakumearentzat eta harekin dauden seme-alaba adingabeentzat, EPAIAK KONDENA ezartzen duenean.

Absoluzio-epaia bada, emakumea eta seme-alabak egoera irregularrean geldituko dira, eta zehapen-prozedura ireki ahalko da, baina praktikan ez da halakorik egiten ari.

2. EBko HERRITARRAREN SENITARTEKOAREN TXARTELA

Egoitzarako eskubidea izan dezaketen espainiar nazionalitateko pertsonen edo Europako herritarren senitartekoak:

- Ezkontidea edo izatezko bikote erregistratua.
- 21 urtetik beheko ondorengoak, edo 21 urtetik gorakoak, kargura bizi direla frogatzen bada (Europako herritarraren edota haren ezkontidearen/bikotekidearen ondorengoak).
- Kargura bizi direla frogatzen duten aurrekoak (Europako herritarraren edota haren ezkontidearen/bikotekidearen aurrekoak).
- Familia zabala edo "beste senitartekoak"
 - Hiritar komunitarioarekin edo bere kargura jatorrizko herrian bizi direnak.
 - Osasun arazo larriak edo desgaitasun baten ondorioz hiritar komunitarioak beraietaz kargu egin behar denean.

2012an, osasun sistemaren "erreforma" baliatu zuten, senitarteko horien egoitzarako sarbidea izugarri zailtzeko. Horretarako, muturreko betebeharrak batzuk eskatzen dira. Jurisprudentzia betebeharrak horiek atzera botatzen ari da espainiarren senitartekoei dagokienez, halako bazterkeria gisako bat sortzen duela ulertzen delako nazionalitate espainiarra dutenen artean (bizitza familiarerako duten eskubidea urratuz). Horrez gain, oker txertatu da Europako herritarren eta haien senitartekoen egoitzarako eskubidea arautzen duen Zuzentaraua, beste Estatu kide batera joaten direnean. Dena dela, gaur egun, betebeharrak honakoak dira, eta ukazio baten aurrean bagaude, komeni da auzitegietara jotzea, epe ertain-luzerako estrategia bada ere.

Europako herritarrak (eta/edo espainiarrak) honako betebeharrak hauek ditu:

- Familia-lotura frogatu beharko du. JAIOTZA ZIURTAGIRIA / EZKONTZA ZIURTAGIRIA / BIKOTE INSKRIPZIOA.
- Bizikidetzaren frogatzea. ERROLDATZE FAMILIARRA edo KOLEKTIBOA.
- NANA edo EBko Estatu kideko nortasun agiria + erregistro ziurtagiria.
- Senitartekoaren pasaporteak.
- 21 urtetik gorako aurrekoei edo ondorengoei dagokienez, mendekotasun ekonomikoa frogatu beharko da (aldian behingo diru-bidalketak, ikasketa-matrikulen ordainketak, etab.).
- Besteen konturako langilea dela frogatzea: LAN KONTRATUA + AZKEN 6 NOMINAK + PFEZ AITORPENA + LAN BIZITZARI BURUZKO TXOSTENA edo
- Bere konturako langilea dela frogatzea: JEZ ALTA + AZKEN BEZ, PFEZ AITORPENAK + LAN BIZITZARI BURUZKO TXOSTENA edo
- Lan jarduerarik egiten ez bada, frogatu beharko da "behar adina" diru-baliabiderik duela egoitza denboraldirako: BANKUKO SALDOA BATEZ BESTE + JABETZA TITULUAK + OSASUN ASEGURU PUBLIKOA edo PRIBATUA edo
- Ikaslea bada: IKASTETXEKO MATRIKULA + OSASUN ASEGURU PUBLIKOA edo PRIBATUA + BEHAR ADINA DIRU-BALIABIDE
- Osasun estaldura (aseguru publikoa edo pribatua).

Banan-banan baloratu beharko dute, baina "behar adina" da Ondorio Askotarako Errenta Adierazle Publikoaren baliokidea (IPREM), urteko (6.390,13 euro 2016an); praktikan, egoitzarako eskubidea emango den 5 urte horiekin biderkatzen dutenez, zenbatekoa ia 32.000 eurokoa da.

Egoitza- eta lan-baimena 5 urterako ematen da (bakarrik erresidentzia menpekoei).

B)**PAPERDUNAK:****1. JADA EGOITZA BADUZU ETA BERRITU BEHAR BADUZU...**

Aldi baterako baimena baduzu, eta oraindik ez badira 5 urte jarraian igaro lehen baimena eman zizutenetik, baimena berritzeko izapideak hasi behar dituzu.

Honako kasu hauetako batean egon beharko duzu:

- Berritu nahi duzun baimena eman zizutenean lan egiten zenuen toki berean lan egiten jarraitzea (KONTRATUA + LAN BIZITZARI BURUZKO TXOSTENA).
- Gutxienez 6 hilabetez kotizatu izana baimen-urte bakoitzeko, eta lan berri batean altan egotea, edo kontratu berri bat aurkeztea, zeinaren eraginkortasuna baimena berritzeari lotuta dagoen (KONTRATUA + LAN BIZITZARI BURUZKO TXOSTENA).
- Gutxienez 3 hilabetez kotizatu izana baimen-urte bakoitzeko, lana era aktiboan bilatzen aritu izana frogatzea, eta lana galdu izana zure borondatez kanpoko arazoiek eraginda (KONTRATUA + LAN BIZITZARI BURUZKO TXOSTENA + KANPORATZE GUTUNA + ENPLEGU ESKATZAILE ALTA).
- 9 hilabetez kotizatu izana, 12 edo 18 hilabeteko epealdi batean 24ko epealdian (LAN BIZITZARI BURUZKO TXOSTENA).
- Langabezia saria edo laguntza-prestazioa jasotzea (edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo Oinarrizko Errenta jasotzeko eskubidea aitortuta).
- Zure ezkontideak edo izatezko bikotekideak familia berriz ere elkartzeko baldintzak bete ditzala.

Kontuan hartzekoak:

- Ezin izango da deuseztatu gabeko aurrekari penalik eduki.
- Zure egoitza berrelkartua bezalakoa bada, familia-lotura mantentzen dela frogatu beharko duzu.
- Zure kargura adingabeak badituzu, eskolatuak daudenak.
- EPEA berritzeko: iraungitze-data baino 2 hilabete lehenagotik 3 hilabete geroa-gora arte.
- Baimena berritzeko eskariak aurreko baimenaren balioa luzatuko du, harik eta ebazten den arte.
- Aldez aurreko hitzordua ezarrita aurkez daiteke kasuan kasuko Atzerritartasun Bulegoan, baina era berean atzerritartasun erregistroaz edo posta ziurtatuz posta-bulegoan, eta ziurtatu behar dugu eskabidearen kopia bat emango digutela, sarrera-zigilua eta guzti.

2. FAMILIA ZUREKIN ELKARTZEA NAHI DUZU

a) *Familia araubide orokorrean berrelkartzea*

Araubide orokorraren araberako egoitza-baimen baten jabea bazara, eta azpian azaldu ditugun baldintzak betetzen badituzu, senitarteko hauek ekarri ahalko dituzu:

- Ezkontidea edo bikotekide erregistratua.
- 18 urtetik beheko ondorengoak edo ezgaituak.
- Zure legezko zaintzapean dauden 18 urtetik beheko adingabeak edo ezgaituak.
- 65 urtetik gorako aurrekoak, zure kargura daudela frogatuta.

Betebeharrak:

- Egoitza-baimen BERRITUAREN titularra izatea
- Aurrekoak ekartzeko, Iraupen Luzeko Egoitzaren titularra izatea
- Familia-lotura frogatzea: agiri legeztatuak/argibideak erantsiak eta itzuliak
- Aldian behingo diru-sarrerak badirela frogatzea (gutxienez ere azken 6 hilabete-etakoak):
- Familia-unitatea 2 pertsonak osatzen badute = 800euro/hileko gutxi gorabehera.
- Bestelako kide bakoitzeko = 300euro/gehiago hileko gutxi gorabehera.
- Etxebizitza egokia eskura duzula frogatzea (ETXEBIZITZA TXOSTENA. EAEn, "Zuzenean"erakundean eskatu behar da, eta Nafarroan, Udal bakoitzean).

Prozedura:

Eskaria Espainian legez bizi den pertsonak egin behar du, kasuan kasuko Atzerritartasun Bulegoan.

Baiezko ebazpenarekin erantzuten zaio. Ebazpena jatorrizko herrialdera helarazten zaio ahaideari, familia berrelkartzeko bisaren izapideak Espainiako kontsulatuan egin ditzan.

Behin Espainiako lurraldera iritsita, berrelkartutako atzerritarren egoitza-txartela izapidetu behar da, berrelkartzea eskatu duenari lotuta egongo dena, iraungitze-data berberarekin, eta 16 urtetik gorakoei lan egiteko baimena emango die.

b) *Europar Batasuneko araubidearen araberako familia berrelkartzea*

EBko herritarraren senitarteko txartelaren titularra bazara, eta nazionalitate espainiarra edo europarra baduzu, honakoak ekarri ahalko dituzu:

- Ezkontidea edo bikotekide erregistratua.
- 21 urtetik beherako ondorengo adingabeak edo kargura dauden 21 urtetik gorakoak.
- Kargura dauden aurrekoak.

- Kargura dauden bestelako senitartekoak (familia zabaldua)

Prozedura:

Zure senitartekoak zuzenean eskatuko du Europako Batasuneko herritarren senitarteko bisa, Estatu Espainiarrak haren herrialdean duen kontsulatuan.

Behin hona iritsita, eta 3 hilabete igaro baino lehen, Europako Batasuneko herritarren senitarteko txartela eskatu beharko du (8. or.)

3. IRAUPEN LUZEKO EGOITZA

Egoitza-baimena bost urtez izanez gero ulertzen da Iraupen Luzeko Egoitza finkatu egiten dela, ez delarik beste ezer egiaztatu behar. Mugarik gabe egoitza izateko eskubidea ematen du.

Eskubide hau honakoei ere aitortzen zaie:

- Kotizaziopeko pentsioa jasotzen duten egoiliarak (erretiroa, ezintasuna).
- Espainian jaiotakoak, 18 urte bete ondoren azken 3 urteetan era legal eta jarraian estatuan bizi izan direnak.
- 18 urte bete eta 5 urtez erakunde publiko baten tutelapean izan diren egoiliarak.
- Nazionalitatea galdu duten jatorrizko espainiarrak.
- Errefuxiatuak, herrigabeak edota babes subsidiarioa jasotzen dutenak.
- Espainiar estatuaren aurrerapide zientifiko, ekonomiko edo kulturalerako ekarpen nabarmena egin duten pertsonak.

Kontutan izatekoa:

Deuseztatu gabeko aurrekari penalak izanez gero 2 urteko "ohiz kanpoko berritze" bat lortu ahal izango da.

BERRITZEA: Atzerritarren Nortasun Txartela (ANT edo TIE) zuzenean Polizia Nazionalean berritzen da, iraungitze-data bete baino 2 hilabete lehenago eta bete osteko hiru hilabeteen barruan; beharrezkoak dira pasaportearen kopia, erroldatze-agiria, argazkia eta dagokion tasa ordaintzea.

Iraupen luzeko Egoitza - Europar Batasuna (EB)

EBko herritarrei espainiarren baldintza berdinetan mugarik gabe bizitzeko eta lan egiteko eskubide aitortzeaz gainera, EBko kide den beste estatu batera lekualdatzeko aukera izango dute, estatutu hau mantentzen delarik.

109/2003 Zuzentarauan aipatzen den estatutu hau eskakizun guztiak betetzen dituztenek jasoko dute:

- Espainian 5 urtez era legal eta jarraian bizi izan direnek. Ikasle garaiko denborearen %50 hartuko da aintzat.
- Familia elkartzeko baliabide finko eta erregularrak dituztenak.

- Aseguro mediku publiko edo pribatua dutenak.

4. ZURE EGOERA ALDATZEN BADA...

a) *Berrelkartu gisa etorri bazinen araubide orokorrarekin bat, egoitza eskubidea eskuratu ahalko duzu, honako kasuetan (independenteki):*

- Bikotea hausten bada: Espainian gutxienez bi urtez elkarrekin bizi izanda.
- Genero Indarkeriazko kasu bat gertatzen bada.
- Lan-kontratu bat izatea, edo negozio-proiektu bideragarri bat edo behar adina diru-baliabide.
- Berrelkartzea eskatu zuena hiltzen bada.

b) *Europar Batasuneko herritarraren senitarteko txartelaren titularra bazara, eta familia-lotura desagertzen bada (dibortzioa, bikote inskripzioaren deuseztapena), Europar Batasuneko egoitzarako eskubidea mantenduko duzu, honako kasuetan:*

- Bikotea gutxienez 3 urtez egon bada ezkondua edo izatezko bikotearen inskripzioak gutxienez 3 urte iraun badu, betiere urte batez Estatu Espainiarrean bizi izan badira.
- EBko nazionalaren adingabeen zaintza zure gain izatea.
- Genero Indarkeriaren biktima izatea .
- Ezkontideak edo bikotekideak gizakien salerosketan erabili bazaitu.
- Espainian bizi den seme-alabaren bisita-eskubideari buruzko ebazpen judiziala edo elkarrekiko akordioa dagoenean.

Aurreko egoerarik ez badago, araubide orokorrera ALDATU beharko da; horretarako, kontratu bat behar da, gutxienez urtebeteko iraupeneko, eta Gutxienezko Soldata bermatuko duena.

c) *Ikasle gisa etorri bazinen eta lan egitera gelditu nahi baduzu...*

"Egoitza eta lana" egoerara aldatzeko eskatu behar da, honako baldintza hauek bete-ta:

- Gutxienez 3 urtez ikasle aritu izana.
- Ikasketak gainditu izana frogatzea.
- Kontratuak urtebeteko iraupena izan behar du, eta gutxienezko soldata bermatu behar du, edo autonomotan aritzeko baldintzak bete.

d) *Besteen konturako langile izatetik zure konturakoa izatera aldatu nahi baduzu, alde-rantziz, edo bi egoerak konbinatu nahi badituzu*

- Besteen konturakoa izatetik norbere kontura: egoitza urte bat + bere konturako baldintza betetzea.
- Bere kontura egoeratik besteen kontura: egoitza urte bat + urtebeteko kontratua eta gutxienezko soldata.
- Bien konbinazioa: bietarako baldintza orokorrak bete behar dira.

5. NAZIONALITATE ESPAINIARRA ESKURATZEA

Helbidez dagokizun Erregistro Zibilean eskatu behar duzu. Aldez aurreko azterketa egin ondoren, eskaera Madrilgo Justizia Ministeriora helaraziko da. Jatorrizko dokumentazioa aurkeztuko da, argibideak erantsita, edota diplomazia bidez legeztatua, eta itzultzaile ofizialak itzulia.

2015eko urrian sartze froga batzu ezartzen dira (espainiar hizkuntza, espainiar kultura eta konstituzioaren ezagutza) eta beharrezko tasa bat erresidentzia bidezko nazionalitatearen tramiteari hasiera emateko.

Jatorriagatik

- Aita edo ama espainiarraren seme-alabak.
- Bere mugetatik kanpo jaiotakoei nazionalitatea aitortzen ez dien herrialde bateko nazionalen seme-alabak, baldin eta Espainian jaio badira.

Ez-inskripzioa eta aplikatu beharreko araudia ziurtatzen dituen dokumentazio kontsularra aurkeztu beharko da, bai eta jaiotza-ziurtagiri literala ere.

Egoitzagatik

Honako epe hauek aurreikusten dira legezko egoitza etengabeen igarotako denboragatik, betiere eskaera egin aurre-aurretik:

- 10 urtez legezko egoitza etengabeen - epe orokorra
- 5 urtez legezko egoitza etengabeen - errefuxiatuentzat
- 2 urtez legezko egoitza etengabeen - Gaztelaniaz edo portugesez mintzo diren herrialde iberoamerikarretako, Andorrako, Filipinetako, Ekuatore Gineako, Portugaleko nazionalentzat, eta sefardientzat ere bai.
- Urtebetea legezko egoitza etengabeen
 - Espainian jaiotakoentzat
 - Espainiarraren ezkontide edo alarguna
 - Aukeragatik behar bezala jardun ez duena
 - Espainiar herritarraren edo erakundearen babespean, zaintzan edo harreran dagoen pertsona
 - Espainiatik kanpo jaiotakoak, aurrekoak jatorriz espainiarrak badira.

Aukeragatik

- Nazionalitate espainiarra eskuratzeko aukera izango dute nazionalitate espainiarreko pertsona baten guraso-aginteari lotutako pertsonak, adin nagusira iritsi eta bi urtera arte.
- Espainian jaiotakoak, hots, jatorriz espainiarra den aitaren edo amaren seme-alabak.

Sorleku-karta

- Gobernuak Errege-Dekretuz emateko edo ukatzeko aukera du, salbuespenezko inguruabarrak ote diren aintzat hartu ostean.

Estatua izateagatik

- Espainiar nazionalitatea izateko eskubidea ukango du nazionalitate hau izan duenak hamar urtez jarraian, fede onez (benetako egoera ezagutu gabe, hots, berez espainiarra ez dela jakin gabe), Erregistro Zibilean inskribatutako titulu batean oinarrituta.

3

ADINGABEAK

Adingabeek adingabe espainiarren estaldura berbera dute oinarrizko eskubideetan (hezkuntza, osasuna, gizarte babesa). Baina atzerritartasun arloko araudiak ukitzen ditu, eta haien egoera gurasoen, edo adingabeen lege-babesa dutenen, egoerari lotuta egongo da.

Espainian jaio bada:

- Gurasoek egoitza-baimena dute: adingabeak gurasoetako bati loturiko egoitza-baimena eskuratuko du.
- Gurasoek ez dute egoitza-baimenik: gurasoak egoera irregularrean badaude, adingabea ere bai. Gurasoetako batek bere egoera erregularizatzen duenean, adingabea erregularizatu ahalko da.

Ez bada Espainian jaio:

Adingabea erregularizatzeko, gurasoek frogatu beharko dute gutxienez 2 urte daramatzala lurraldean, denboraldi horretan eskolatua egon dela, eta haiek berek bete egingen dituztela familia berrelkartzeko baldintzak (diru-baliabideak + etxebizitza egokia).

Heldurik gabe dauden adingabe atzerritarrak:

Atzerritartasun arloko araudiarekin bat, heldurik gabe dauden edo helduen erreferentziarik ez duten eta babesik gabe dauden adingabe atzerritarrei dagokienez, lehenik eta behin adingabe horiek aberriratzen saiatuko da. Haien babesaz arduratzen den administrazioak dokumentazioa emateko arduraduna izango da.

Bizitzeko baimena emango zaie, urtebetekoa, lan egiteko baimenik gabe. Baimenak indarra izango du administrazioak adingabeen babesa bere gain hartu zuen datatik aurrera.

Egoera zailtzen da, adin nagusira iristen direnean, eta egoitza-baimena berritu behar dutenean. Izan ere, lan-baimenik ez dutenez, bestelako diru-baliabideak erakutsi behar dituzte; IPREM adierazlearen % 100, hain zuzen (532,51euro/hileko).

Komenigarriena da kontratu bat bilatzen saiatzea, egoitza- eta lan-baimena izatera aldatzeko.

4

KONTU PRAKTIKO
GARRANTZITSU
BATZUK

Kopiak

Funtsezkoa da aurkezten dugun guztiaren kopia gordetzea.

Balio

Atzerriko dokumentuek Espainiako agintarien aurrean balioa izan dezaten, diplomazia bidean egon beharko dute argibideak erantsita edo legeztatuak, eta era berean, zinpeko itzultzaile ofizialak gaztelaniara itzuliak. Dokumentuaren balioa dokumentuan bertan ezarria dago, edo halakorik ezean, hiru hilabeteko balioa izango du jaulkitzen den datatik aurrera.

Epeak

Epeak gogoan izatea: bereziki, iraungitze-epea eta ebazpenak jakinarazteko epea, baimenak berritzeko eskaerak noiz aurkeztu edo errekurtsioak noiz tartekatu kalkulatzeko.

Txartel iraungia

Baimena berritzeko eskaera aurkeztu bada, balioa luzatzen da baimen-berritzearen inguruko ebazpena eman arte.

Aldaketak

Helbidea, egoera zibila eta nazionalitatea aldatzen bada, Atzeritartasun Bulegoari jakinarazi behar zaio.

Absentziak

Aldi baterako egoitza-baimenaren titularra bazara, urtebetean 6 hilabete baino gehiago Espainiako lurraldetik kanpo egoteak egoitza-baimena iraungitzen du (orokorra eta Europar Batasuneko).

Iraupen luzeko egoitza-baimenaren titularra bazara, 12 hilabete baino gehiago EBko lurraldetik kanpo egoteak egoitza-baimena iraungitzen du.

Europar Batasuneko araubidearen arabeko egoitza-baimenaren titularra bazara, jarraian bi urtetik gorako kanpoan egoteak ez du ondoriozko izango.

Errekurtsioak

Ukazio-ebazpenen aurrean, administrazio-errekurtsioak jar daitezke (hots, administrazioak berak ebazten dituenak). Berraztertzea edo gora jotzeko errekurtsioa, edo

auzitegietara jo edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahalko da, eta horretarako abokatua beharko da.

Identifikazioa

Poliziak (nazionala edo guardia zibila) identifikatzen bazaitu eta oraindik ez baduzu egoitza-baimenik, zehapen espediente bat irekitzen ahal dizute "egonaldi irregularraren" atxilotzen bazaituzte, abokatua eta interpretea izateko eskubidea izango duzu. Komeni da etxean karpeta bat izatea, "errotzea" frogatzen duen dokumentazio garrantzitsu guztia gordetzeko (erroldatzea, izapidean dauden atzerritartasun eskakera, ikastaro matrikulak, familia egoiliarra, etab.). Karpeta, gainera, aurkitzeko moduko toki batean utziko dugu, konfiantzazko pertsona batek zure abokatuari helarazi diezaion, eta abokatuak, horrela, kanporatze agindu baten aurkako alegazioak presta ditzan, halako agindurik bada.

5

ATZERRITARRENTZAKO
ARRETA
ESPEZIALIZATUA
ETA WEB ORRIAK

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

AHOLKU SAREA - Atzerritartasun gaietako euskal zerbitzu juridikoa (Eusko Jaurlaritza)

Partikularrentzako arreta:

900 840 890 - asesoria@euskadi.eus

Profesionalentako arreta:

944 001 809 - juridika@biltzen.org

Aholkularitza juridiko espezializatu presentziala eskaintzen duten itunpeko erakundeak:

ARABA:

- GURUTZE GORRIA 945 132 630
- CEAR 945 266 805

BIZKAIA:

- GURUTZE GORRIA 944 230 359
- CITE -CCOO 944 243 424
- CARITAS (bere gizarte-zerbitzuen bidez)
- KOSMOPOLIS 688 605 551

GIPUZKOA:

- GURUTZE GORRIA 943 327 795
- ADISKIDETUAK 943 639 690
- SOS ARRAZAKERIA 943 245 627

Atzerritartasunari buruzko orientazio juridiko-sozialeko zerbitzua

Barakaldoko Udaleko Immigrazio Zerbitzua 944 789 540

Nafarroa

Immigrazioako Bulegoa (Nafarroako Gobernua)

Gonzalez Tablas, 7 (Iruñea - Pamplona)
848 425 491

Etorkin aholkularitza (Gizakia Herritar fundazioa)

Jarauta, 83 (Iruñea - Pamplona)
948 212 656
<http://migrasolidaria.blogspot.com.es/>

WEBGUNE ESPEZIALIZATUAK

IMMIGRAZIO ETA EMIGRAZIO-ESTATU-IDAZKARITZA

Tramite eta prozedurei buruzko informazio-orriak
<http://extranjeros.empleo.gob.es/es/InformacionInteres/InformacionProcedimientos/index.html>

ESKUBIDEekin MIGRATU

Berriak, legedia eta jurisprudentzia
<http://www.migrarconderechos.es/>

INTERMIGRA

Zaragozako Abokatu Elkargoak eskaintako berriak, legedia eta jurisprudentzia
<http://www.intermigra.info/>

MUGAK

Immigrazioari, arrazismoari eta xenofobiari buruzko Ikerketa eta Dokumentazio Zentroa
<http://mugak.eu/>

